

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Erroen bidez eraturako adierazpenak eraldatu eta haiekin eragiketak egin, propitateak aplikatuz.</p>	<p>1.1. Erroen bidez adierazitako adierazpenak sinplifikatzea eta haiekin eragiketak egitea.</p>
<p>2. Zeharkako neurketak egitea eskatzen duten problemak ebatzi, arrazoi trigonometrikoak baliatuz.</p>	<p>2.1. Triangeluekin erlazionatutako propietateak justifikatzea eta triangeluak ebaztea, angeluen propietateak eta arrazoi trigonometrikoak baliatuz eta terminologia eta sinbologia matematikoa zainduz.</p> <p>2.2. Oinarrizko trigonometriarekin erlazionatutako problemak ebaztea.</p>
<p>3. Aldagaien arteko erlazioak funtzioen eta ekuazioen bidez adierazi, adierazpen-moldeak eraldatu eta, haiek baliatuz, problemak ebatzi.</p>	<p>3.1. Arrazoi trigonometrikoak zirkunferentzia goniometrikoan duten esanahia eta trigonometriaren oinarrizko erlazioak aplikatuz, angeluak eta arrazoi trigonometrikoak erlazionatzea eta, trigonometriarekin erlazionatutako problemak ebaztea, sinuaren eta kosinuaren teoremak baliatuz.</p> <p>3.2. Zatika definitutako funtzioen adierazpen aljebraikoak eta grafikoak erlazionatzea, adierazpen horien arteko eraldaketak egitea eta funtzioaren aldakuntza aztertzea.</p> <p>3.3. Funtzio arrazionalak eta irrazionalak deskribatzea eta grafikoki adieraztea, GeoGebra aplikazioa baliatuz eta funtzio horien adierazpen aljebraikoak eta grafikoak erlazionatzea.</p> <p>3.4. Zatiki aljebraikoekin eragiketak egitea, ekuazio bikoadratikoak, arrazionalak, irrazionalak eta ekuazio-sistema ez linealak ebaztea eta haiekin erlazionatutako problemak ebaztea.</p>